



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Ekainak 28, LGTBIQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

Ekainaren 28a ospakizunerako, memoriarako eta aldarrikapenerako eguna da. Beste urte batez, Berdindutik LGTBIQ+ kolektiboak egindako bidea aitortu nahi dugu. Gure gizartean dagoen aniztasuna ikusgarri egin nahi dugu, eta pertsona askoren eta mugimendu sozialen ahaleginari esker lortutako eskubideak defendatu.

Baina egun honek hausnarketarako tartea ere izan behar du. Izan ere, oraindik ere badira egiteko dauden lanak. LGTBIQ+ kolektiboaz multzo gisa hitz egiten badugu ere, errealitate guztiak ez dira baldintza berberen pean bizi.

Badira oraindik ere ikusgarritasun txikiagoa duten identitateak, gorputzak eta sexu-orientazioak. Askotan, gutxiago ulertzen dira eta diskriminazioa jasateko arrisku handiagoa dute. Horien artean daude pertsona transak eta intersexualak, baita emakume lesbianak eta pertsona bisexualak ere. Haien errealitateek oztopo handiagoak izaten dituzte aitortza osoa lortzeko. Egoera hori ez da gizartean bakarrik gertatzen. Inklusio handiagoa egon beharko lukeen espazio eta komunitateetan ere iraun egiten du.

Era berean, ezinbestekoa da begirada interseksionala izatea. Diskriminazioak ez du modu bakarrean eragiten, eta ez die pertsona guztiei berdin eragiten. Gurutzatzen gaituzten faktoreak askotarikoak dira. Sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gorputzak beste egoera batzuekin uztartzen dira sarri: arrazakeriarekin, pobreziarekin, etxerik ez izatearekin, haurtzaroarekin, desgaitasunarekin, aniztasun psikikoarekin edo bestelako bazterketa egoerekin.

Horrek esan nahi du ez dela gauza bera LGTBIQ+ pertsona izatea laguntza-sare bat, egonkortasun ekonomikoa edo aitortza soziala izanda, edo prekaritatean, bakardadean edo diskriminazio anitzen erdian bizitzea. Euskadin ere bizi dira LGTBIQ+ pertsonak zaugarritasun, desberdintasun edo ikusezintasun egoeretan. Besteak beste, egoera administratibo irregularrean dauden migratuak, kale egoeran bizi diren pertsonak, espazio heteronormatiboetan bizi diren adinekoak edo aniztasun psikikoa duten gazte LGTBIQ+ak. Pertsona batzuek zailtasun handiagoak dituzte enplegua eskuratzeko, etxebizitza bat lortzeko edo osasun-arreta jasotzeko. Beste askok ez dute espazio segururik aurkitzen, edo ezin dute beren identitatea lasaitasunez bizi espazio publikoan. Horregatik, Harrotasunaz hitz egiten dugunean, eskubideez ere ari gara. Eta pertsona guztientzako bizi-baldintza duinez. Inork ezkutatu beharrik izango ez duen gizartea eraikitzeaz ari gara. Inork bere burua justifikatu edo beldurrez bizi beharrik izango ez duen gizartea.



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Azken urteetan ikusten ari gara zenbait diskurtsoek dagoeneko lortutako eskubideak zalantzan jartzen dituztela. Era berean, espazio batzuk gero eta seguruagoak ez direla pertsona LGTBIQ+ askorentzat ere ikusten ari gara. Horren aurrean, gogorarazi behar dugu gizarteko espazio guztiak herritar guztienak direla. Eta espazio bat benetan publikoa bada, anitza izan behar du nahitaez. Kaleak, erakundeak, ikastetxeak, kultur guneak eta komunitate espazioak pertsona guztiek berdintasunean egon eta parte hartu ahal izateko lekuak izan behar dira.

Aniztasuna ez da mehatxu bat, ezta salbuespen bat ere. Gure gizartearen errealitatea da, eta denon ondarea. Gizarte irekiagoa, demokratikoagoa eta gizatiaragoa eraikitzen laguntzen digu. Horregatik da beharrezkoa oraindik ere ekainaren 28an ahotsa altzatzea. Ospatzea ere erresistentzia egitea delako. LGTBIQ+ pertsona guztien errealitateak ikusgarri egiteak garrantzitsua izaten jarraitzen duelako. Eta oraindik ere badirelako bazterrean geratzen diren ahotsak, bizipenak eta beharrak.

Berdindutik, gure konpromisoa berretsi nahi dugu LGTBIQ+ pertsona guztiekin, bereziki zaugarritasun handieneko egoeretan bizi direnekin. Lanean jarraituko dugu pertsona guztientzat bidezkoagoa, inklusiboagoa eta anitzagoa izango den gizartea eraikitzeko.



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



Ekainak 28

LGTBIQ+ kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren Manifestua

Ekainaren 28a **LGTBIQ+** pertsonen eskubideak ospatzeko, gogoratzeko eta defendatzeko eguna da.

Letra lodiko hitzak
dokumentuaren
amaieran

Egun honek oraindik dauden
erronketan pentsatzeko ere balio du.
Aurrerapen asko lortu diren arren,
LGTBIQ+ pertsona guztiek
ez dituzte egoera berberak bizi.

- **Trans eta intersexual** pertsonen diskriminazioa jasaten jarraitzen dute.
- Lesbiana eta pertsona bisexual askok zailtasunak dituzte beren burua ikusarazteko.
- Pertsona batzuek oztopoak aurkitzen dituzte aintzatetsiak eta errespetatuak izateko.

Arazo horiek gizartean gerta daitezke,
baina baita errespetua eta inklusioa
egon beharko luketen lekuetan ere.

Garrantzitsua da ulertzea pertsona batek
diskriminazioa jasan dezakeela
hainbat arrazoiengatik aldi berean.

Adibidez, **sexu-orientazioagatik**,
genero-identitateagatik, jatorriagatik,
larruzalaren koloreagatik, egoera ekonomikoagatik,
desgaitasunen bat izateagatik, osasun mentaleko arazoengatik
edo beste **kalteberatasun**-egoera batzuegatik.

Pertsona guztiok ez ditugu aukera berdinak.
LGTBIQ+ pertsona batzuek familiaren laguntza,
egonkortasun ekonomikoa eta aintzatespen soziala dute.



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Beste pertsona batzuek egoera zailagoak bizi dituzte.
Adibidez, migratzaileak,
pobrezia-egoeran dauden pertsonak,
dibertsitatea errespetatzen ez duten
inguruneetan bizi direnak,
beren nortasuna askatasunez erakustea
zaila den eremuetan bizi direnak
edo desgaitasuna duten LGTBQ+ gazteak,

Pertsona horiek zailtasun gehiago izan ditzakete
lana aurkitzeko, etxebizitza bat eskuratzeko,
bizitza sozialean parte hartzeko
edo beren nortasuna lasaitasunez
eta segurtasunez bizitzeko.

Harrotasun Eguna ez da ospakizun hutsa.
Eskubide eta aukera berdintasunaren alde
lanean jarraitzeko aukera ere bada.

LGBTQ+ pertsonen eskubideek
gizarte osoari egiten diote mesede.
Azken urteotan, zalantzan jartzen ari dira
jada lortuta zeuden eskubideak.
Badaude ere LGBTQ+ pertsona batzuk
seguru edo errespetatuta sentitzen ez diren lekuak.

Horregatik, garrantzitsua da gogoraraztea
gizarteko espazio guztiak
pertsona guztiontzat direla.

Espazio publikoek anitzak
eta inklusiboak izan behar dute.
Kaleak, erakundeak, ikastetxeak,
gune kulturalak, komunitarioak...

Leku horiek guztiek aukera eman behar digute,
pertsona guztioi, parte hartzeko
eta baldintza berdinetan bizitzeko.



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Aniztasuna ez da arazoa.
Aniztasuna errealitate eta
balio positiboa da gizartearentzat.
Gizarte irekiagoa, demokratikoagoa,
errespetuzkoagoa eta gizatiarragoa
eraikitzen laguntzen digu.

Horregatik, ekainaren 28a egun garrantzitsua da oraindik.
LGTBIQ+ pertsonen eskubideak defendatzeko,
haien errealitateak eta esperientziak ikusarazteko
eta oraindik desberdintasunak daudela
gogorarazteko eguna da.

Berdinduk LGTBIQ+ pertsona guztiekiko
konpromisoa berritu du.
Kalteberatasun handieneko egoerak
bizi dituztenei ere bereziki laguntzen diegu.

Lanean jarraituko dugu
pertsona guztientzako gizarte bidezkoagoa,
inklusiboagoa eta anitzagoa eraikitzeko.

LGTBIQ+: Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual,
Intersexual, Queer eta beste batzuen siglak dira (+).

Lesbiana: Emakume homosexuala, emakumeenganako
erakarpen sexual, fisiko eta sentimentala duena.

Trans pertsonak: jaiotzean esleitutako sexuarekin/generoarekin
identifikatzen ez diren pertsonak.
Adibidez, transexualak,
transgeneroak edo ez-binarioak.

Pertsona intersexualak: gizonezkoaren edo
emakumezkoaren definizio ohikoekin
(kromosomak, gonadak, hormonak
edo ugalketa/genitalen anatomia)
guztiz bat ez datozen
sexu-ezaugarri biologikoekin jaiotzen diren pertsonak dira.



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Pertsona intersexual batzuk gizonak dira,
beste batzuk emakumeak,
eta beste batzuk hainbat modutan identifika daitezke.

Sexu-orientazioa: Pertsona batek beste batzuekiko mantentzen duen jarrera emozionala, erromantikoa edo sexuala. Oso alderdi garrantzitsua da pertsonon bizitzan. Ohikoenak heterosexuala, homosexuala edo bisexuala dira. Baina badira beste batzuk.

Genero-identitatea: pertsona batek bere burua identifikatzeko modua da, haren genitalei erreparatu gabe. Adibidez, bulba edo zakila. Pertsona batzuk emakume sentitzen dira, nahiz eta gizonen gorputzarekin jaio ziren, eta alderantziz, edo gizon edo emakume sentitzen ez diren pertsonak.

Kalteberatasuna: pertsonak bizitzan zailtasun gehien dituen egoera (ekonomikoak, osasunekoak, familiakoak, etab.) eta babes eta laguntza handiagoa behar duena.



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

28 de junio, Día Internacional por la Liberación Sexual y el Orgullo del Colectivo LGTBIQ+

El 28 de junio es una fecha de celebración, memoria y reivindicación. Un año más, desde Berdindu queremos reconocer el camino realizado por el colectivo LGTBIQ+, visibilizar la diversidad que existe en nuestra sociedad y defender los derechos que han sido conquistados gracias al esfuerzo colectivo de muchas personas y movimientos sociales.

Pero este día también debe ser un momento para reflexionar sobre aquello que todavía queda pendiente. Porque, aunque hablemos de colectivo LGTBIQ+ en conjunto, no todas las realidades están atravesadas por el mismo contexto.

Existen identidades, corporalidades y orientaciones sexuales que continúan siendo menos visibles, menos comprendidas y más expuestas a la discriminación. Entre ellas se encuentran las personas trans e intersexuales, así como las mujeres lesbianas y las personas bisexuales, cuyas realidades siguen enfrentando mayores dificultades para ser reconocidas plenamente. Esta situación no solo se produce en la sociedad en general, sino que también persiste dentro de los propios espacios y comunidades donde debería existir una mayor inclusión y reconocimiento.

Al mismo tiempo, es fundamental tener una mirada interseccional. La discriminación no actúa de una única manera ni afecta igual a todas las personas, son muchas las aristas que nos atraviesan. La orientación sexual, la identidad o los cuerpos se cruzan muchas veces con otras situaciones de vulnerabilidad o discriminación social: el racismo, la pobreza, el sinhogarismo, las infancias, la discapacidad, la diversidad psíquica, otras formas de exclusión social...

Esto significa que no es lo mismo vivir siendo una persona LGTBIQ+ con una red de apoyo, estabilidad económica o reconocimiento social, que hacerlo desde contextos de precariedad, aislamiento o discriminación múltiple. En Euskadi viven, aunque muchas veces en situación de vulnerabilidad, desigualdad e invisibilidad personas LGTBIQ+ migradas en situación administrativa irregular; en situación de calle, mayores en espacios heteronormativos, jóvenes LGTBIQ+ con diversidad psíquica... Hay personas que siguen teniendo más dificultades para acceder a un empleo, a una vivienda, a la atención sanitaria, a espacios seguros o incluso a la posibilidad de vivir su identidad con tranquilidad en el espacio público. Por eso, cuando hablamos de Orgullo, también hablamos de garantizar derechos y condiciones de vida dignas para todas las personas. Hablamos de construir una sociedad donde nadie tenga que esconderse, justificarse o sentir miedo por ser quien es.

En los últimos años estamos viendo cómo determinados discursos cuestionan derechos ya conquistados y cómo algunos espacios se vuelven cada vez menos seguros para ciertas personas



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

LGTBIQ+. Frente a ello, es importante recordar que todos los espacios de la sociedad pertenecen a toda la ciudadanía. Y si es verdaderamente público, debe ser necesariamente diverso. Las calles, las instituciones, los centros educativos, los espacios culturales y comunitarios tienen que ser lugares donde todas las personas puedan existir y participar en igualdad de condiciones.

La diversidad no es una amenaza ni una excepción: es una realidad social y un valor colectivo que nos enriquece como sociedad. Nos hace más abiertas, más democráticas y más humanas. Por eso el 28 de junio sigue siendo necesario alzar la voz. Porque celebrar también es resistir. Porque visibilizar todas las realidades de las personas LGTBIQ+ sigue siendo importante. Y porque todavía hay muchas personas cuyas voces, experiencias y necesidades continúan quedando al margen.

Desde Berdindu reafirmamos nuestro compromiso con todas las personas LGTBIQ+, especialmente con aquellas que viven situaciones de mayor vulnerabilidad, y seguiremos trabajando para construir una sociedad más justa, inclusiva y diversa para todas ellas.



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



28 de junio

Manifiesto por el Día por la Liberación Sexual y el Orgullo del Colectivo LGTBIQ+

El 28 de junio es un día para celebrar, recordar y defender los derechos de las personas **LGTBIQ+**.

Este día también sirve para pensar en los retos que todavía existen. Aunque se han conseguido muchos avances, no todas las personas LGTBIQ+ viven las mismas situaciones.

- Las personas **trans e intersexuales** siguen sufriendo discriminación.
- Muchas **lesbianas** y personas bisexuales tienen dificultades para hacerse visibles.
- Algunas personas encuentran barreras para ser reconocidas y respetadas.

Estos problemas pueden ocurrir en la sociedad, pero también en lugares donde debería haber respeto e inclusión.

Es importante entender que una persona puede sufrir discriminación por varios motivos al mismo tiempo.

Por ejemplo, por su **orientación sexual**, su **identidad de género**, su origen o color de piel, su situación económica, por tener una discapacidad, problemas de salud mental o por otras situaciones de **vulnerabilidad**.

No todas las personas tienen las mismas oportunidades. Hay personas LGTBIQ+ que cuentan con apoyo familiar, estabilidad económica y reconocimiento social.

Otras personas viven situaciones más difíciles. Por ejemplo, las personas migrantes, personas en situación de pobreza,

Las palabras en negrita
vienen definidas
al final del documento.



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

las que viven en entornos poco respetuosos con la diversidad, en zonas donde es difícil mostrar su identidad con libertad o las personas jóvenes LGTBIQ+ con discapacidad,

Estas personas pueden tener más dificultades para encontrar trabajo, acceder a una vivienda, participar en la vida social o vivir su identidad con tranquilidad y seguridad.

El Día del Orgullo no es solo una celebración. También es una oportunidad para seguir trabajando por la igualdad de derechos y oportunidades.

Los derechos de las personas LGTBIQ+ benefician a toda la sociedad. En los últimos años, se están cuestionando derechos ya se habían conseguido. También hay lugares donde algunas personas LGTBIQ+ no se sienten seguras o respetadas.

Por eso es importante recordar que todos los espacios de la sociedad son para todas las personas.

Los espacios públicos deben ser diversos e inclusivos. Las calles, las instituciones, los centros educativos, los espacios culturales, los comunitarios... Todos estos lugares deben permitir que cualquier persona participe y viva en igualdad de condiciones.

La diversidad no es un problema. La diversidad es una realidad y un valor positivo para la sociedad. Nos ayuda a construir una sociedad más abierta, democrática, respetuosa y humana.

Por eso el 28 de junio sigue siendo un día importante. Es un día para defender los derechos de las personas LGTBIQ+, hacer visibles sus realidades y experiencias y recordar que todavía existen desigualdades.

Desde Berdindu renovamos nuestro compromiso con todas las personas LGTBIQ+.



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA

#EUSKADIBERRIA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

También apoyamos especialmente
a quienes viven situaciones de mayor vulnerabilidad.

Seguiremos trabajando
para construir una sociedad más justa,
más inclusiva y diversa para todas las personas.

LGTBIQ+: son las siglas de Lesbianas, Gays,
Trans, Bisexuales, Intersexuales, Queer y otros (+).

Lesbiana: Mujer homosexual, que siente atracción
sexual, física y sentimental hacia las mujeres.

Personas Trans: personas que no se identifican
con el sexo/género asignado al nacer.
Por ejemplo, personas transexuales,
transgénero o no binarias.

Personas intersexuales: personas que nacen con características
sexuales biológicas (cromosomas, gónadas, hormonas o anatomía reproductiva/genital) que no
encajan del todo
en las definiciones típicas de masculino o femenino.
Algunas personas intersexuales son hombres,
otras mujeres, y otras pueden identificarse
de distintas maneras.

Orientación sexual: Atracción emocional, romántica o sexual
que una persona siente por otras. Es un aspecto muy importante
en la vida de las personas. Las más comunes son heterosexual,
homosexual o bisexual. Pero hay otras más.

Identidad de género: es como se identifica una persona,
sin importar sus genitales. Por ejemplo, si tiene vulva o pene.
Hay personas que se sienten mujeres,
aunque nacieron con cuerpo de hombre y viceversa,
o personas que no se sienten ni hombres ni mujeres.

Vulnerabilidad: situación en la que la persona
tiene más dificultades en la vida (económicas,
de salud, familiares, etc.) y que necesita
de más apoyo y ayuda.